





Aske Lezo ko aldizkaria

1 ZENBAKIA

1985-eko MAIATZA



ASKE aldizkariaren azken hitza

1985.eko maiatzaren 3an «ASKE» plazaratu genuen lehen aldiz. Gaur, hiru urte beranduago, «ASKE»-ren atea betirako ixtea erabaki dugu, bostgarren zenbakiaren proiektua bertan-behera utziaz.

Aldizkaria sortzeko proiektuaren inguruan taldetxo independente bat bildu ginen, elkar ezagutzen genuen gazteez osatua. Haserako helburua geure kezka eta gauzak azaltzea zen, eta era berean, pixka bat bederen, euskara indartzea eta guztiok Lezo hobeto ezagutzea. Hori izan da geure filosofia «ASKE» plazaratu izan dugun bakoitzean.

Geure gaurko erabakiaren arrazoi nagusia denbora falta da. Bateko lana edo ikasketak direla, besteko lagunak eta mila historia, gero eta zailago egin izan zaigu elkartzea eta lan egitea, azken urte honetan egoera gehiegi larritzeraino.

Uste dugu egindako lanak pena merezi izan duela eta «ASKE»-k bide berri bat urratu duela Lezoko kulturaren munduan.

Zorionez «ASKE» Lezon aldizkari berri bat sortzear dagoenean desageritzen da. Beraz, gauzak horrela izanik uste dugu ez dela etenik nabarituriko. Bestalde geure asmoa aldizkari berri horretan kolaboratzaile gisa laguntzea da.

«ASKE» aurrera ateratzen lagundu izan duten guztiei, bai irakurle bai kolaboratzaile, dihoakiela hemendik geure eskerrik beroena.

Gauza guztiek dute hasera eta bukaera. Hemen eta orain bukatzen da «ASKE, Lezoko Aldizkaria»-ren historia.

Lezon, 1988.eko uztailak 1.

José Luis APERRIBAY
Mari Mar AROZENA
Mikel SUSPERREGI
Juan Luis URKIZU
Lander ZURUTUZA